

DIAGNOSTIKO TRESNA BETETZEKO GIDALERROAK ENTITATE EMAILEKO ARDURADUNENTZAT

Dokumentu honen helburua da Udaletik iritsi zaizuen diagnostiko tresna betetzeko jarraibideak azaltzea. Lehenik eta behin, diagnostiko tresna honen helburuak zeintzuk diren azalduko dira, ondoren diagnostiko tresna erabiltzeko oharrak zerrendatu dira, eta azkenik, tresnak jasoko duen datuak azaldu dira.

DATU BILKETA ZERTARAKO

Udaletik jaso duzun diagnostiko tresna honen helburua da herrian 16 urte azpikoen aisialdi antolatuan euskararen egoera zein den ezagutzea. Hau da, 16 urte azpikoen aisialdia eskolaren indargune bilakatu nahi da, haurren eskolatik kanpo euskaraz aritzeko gune informalak eskaintzea ezinbestekoa baita euskararen erabilera normalizatzeko. Horregatik, ekintzak diseinatu ahal izateko, egoera ezagutu behar dugu lehendabizi.

Gainera, diagnostiko tresna honetan jasotako informazioa denoi izango zaigu baliagarria. Herrian euskara sustatzen jarraitzeko garrantzitsua baita indarra non jarri behar den identifikatzea. Beraz, Udaletik aisialdia antolatzen duzuenoi laguntzeko saiakera dago diagnostiko tresna honen atzean.

Hala, herrian aisialdia antolatzen duzuen denoi helarazi zaizue diagnostiko tresna eta denoi eskatzen zaizuen da zuen entitatean antolatzen duen aisialdiaren datuak sartzea jarritako irizpideen arabera (behean dago zein informazio eskatzen den).

JARRAITU BEHARREKO URRATSAK

1. DIAGNOSTIKO TRESNA JASO

Udaleko teknikari baten bitartez jasoko duzu (eskuz, postaz).

2. ARDURADUN BAT IZENDATU

Informazioa jaso eta tresna beteko duen norbait izendatu.

3. INFORMAZIOA JASO

Tresna bete ahal izateko entitatean 16 urte azpikoentzat antolatutako taldeen informazioa eskura izatea komeni da.

4. INFORMAZIOA JASO

Tresna bete.

5. DIAGNOSTIKO TRESNA HELARAZI UDALERA

Udaleko teknikariari itzuli beteta.

DIAGNOSTIKO TRESNA BETETZEKO OHARRAK

ARDURADUN BAT IZENDATU ENTITATEAN

Hainbat talderen datuak bete behar direnez, gomendatzen dugu diagnostiko tresna betetzeaz arduratuko den pertsona bat izendatzea zuen entitatean.

DATUAK NOIZ/NOLA ITZULI

E-mailez edo online edo eskuz jasotako taulak helarazi udaleko teknikariari.

Hilabeteko epean egitea eskatzen dizuegu.

TRESNAREN OINARRIA TALDEAK DIRA

Datuak betetzen hasi aurretik kontuan izan behar da taldeka antolatu dela informazioa. Hau da, bete beharreko informazioa talde bakoitza oinarri hartuta eman beharko da. Talde bakoitzaren datuak lerro bakarrean sartu beharko dira.

ERA	*TALDEAREN IZENA	*JARDUERA GAIA	*HEZITZAILEA(k) (izena eta identifikatzailea: "Martxel.Ar eta Martxel.Eg")	HEZITZAILEEN KONTRATU-HARREMANA	*JARDUERA EUSKARAZ EMATEKO GAI D(IR)JEN HEZITZAILEA(K) (%)	HEZITZAILEEN EUSKARA TITULAZIOA	*HEZITZAILEEN ARTEAN EMAKUMEZKOAK (%)	HEZITZAILEEN BEREN ARTEKO HIZKUNTZA	*HEZITZAILEEK HAUR/GAZTEEI EUSKARAZ ZENBAT EGITEN DIETE (%)
z	AR-OG18:45	Atzerriko hizkuntzak	James	Lan ordaindua	%0		%0	Ez dagokio	%0
ra	LH2-AZ-19:00	Aire libreko aisia	Joana, Mikel, Peru	Ikasketa-praktikak	%66	C1, 0, B2	%33	Erdaraz	%75
ak	Astelehenak	Pintura	Arrate	Lan ordaindua	%100	C2	%100	Ez dagokio	%100
a	Alebinak A	Futbola	Martin, Ekhiotz	Boluntarioa	%100		%0	Bietara	%75
a	Alebinak B	Futbola	Aitor, Kepa	Boluntarioa	%100	B2	%0	Euskaraz	%100

Bete asteriskoa (*) duten eremu guztiak.

TRESNAREN MAIZTASUNA

Tresna hau ikasturteka funtzionatzeko prestatuta dago. Hala, herriko egoeraren eboluzioa zein entitate bakoitzarena nolakoa izaten ari den ikusi ahal izango da denboran zehar eta emango diren esku-hartzeen eragina ikusi ahal izango da.

Ikasturteka funtzionatuko duenez, jardueren emaitza ere baliagarria izan daiteke ikasturteko taldeen erregistroa sistematizatzeko.

INFORMAZIO KUALITATIBOA

Tresna honek informazio kuantitatiboa du oinarri. Hala ere, kontuan hartu beharreko bestelako informaziorik helarazi nahiko balio entitateak udalari, oharretarako lekua utzi da.

DATU AITORTUAK

Taldeko hezitzailearen euskara ezagutza eta erabilera datu aitortuak eskatzen ditu tresnak. Alegia, ez dago hezitzaileak taldean euskaraz zehazki zein neurritan aritzen den neurtu beharrik. Aski izango da errealitateetik gertu dagoen datua aitortzearekin:

HEZITZAILEEN BEREN ARTEKO HIZKUNTZA	*HEZITZAILEEK HAUR/GAZTEEI EUSKARAZ ZENBAT EGITEN DIETE (%)	Aukeratu: -Euskaraz %100 -Gehien bat EUS %75 -Erdizka %50 -Gehien bat ERD %25 -Erdaraz %0		Emakumezkoen Kopurua (%)	*IKASTURTEKO ORDU KOPURUA
Ez dagokio	%0	5	12-16 urte (DBH)	%50	80
Erdaraz	%75	27	06-11 urte (LH)	%100	30
Ez dagokio	%100	10	06-11 urte (LH)	%50	60
Bietara	%75	12	06-11 urte (LH)	%0	90
Euskaraz	%100	15	06-11 urte (LH)	%0	90
Euskaraz	%25	13	12-16 urte (DBH)	%20	90
Erdaraz	%0	17	12-16 urte (DBH)	%0	90

DIAGNOSTIKO TRESNAREN ADIERAZLEEN DEFINIZIOAK

EMAILEA	Ikastetxearen, elkartearen, ikastegiaren, autonomoaren, enpresaren izena
TALDEAREN IZENA	Emailleak taldeari izen bat jarri behar dio. Berdin du kodifikazioa asmatua den edo ez. Helburua da entitateak kodifikazio/izen horrekin argi izatea zein taldez ari den.
JARDUERA	Aukeratu azpi-azpiko zerrendatik jarduera
HEZITZAILEAREN IZENA	Hezitzailea da 16 urte azpiko gaztetxoekin lanean dabilen begiralea, entrenatzailea, irakaslea, arduraduna... Hezitzailearen izena nahikoa da. Izen hori entitate berean askoek badute, izena + zenbakia jarriko diegu. Adibidea: Mikel1, Mikel2, Mikel3
HEZITZAILEAREN KONTRATU-HARREMANA	Helburua da ezagutzea hezitzaile horrek nolako lotura duen entitatearekin. Hauetako bat aukeratu behar da: lan ordaindua / boluntarioa / ikasketak / praktikak
HEZITZAILEEN ARTEAN EMAKUMEZKOAK	Sartu taldeko hezitzaileen artean emakumezkoen %: - Hezitzaile bakarra, emakumezkoa> sartu %100. - Bi hezitzaile, bat emakumezko> sartu "%50 - Hiru hezitzaile, bat emakumezkoa> sartu %33
HEZITZAILEEN BEREN ARTEKO HIZKUNTZA	Aukeratu taldeko hezitzaileek beren artean nola hitz egiten duten: euskaraz, erdaraz, bietara edo, hezitzaile bakarra egonez gero, "ez dagokio"
JARDUERA EUSKARAZ EMATEKO GAI D(IR)EN HEZITZAILEA(K) (%)	Gai bada sartu "%100" eta gai ez bada sartu "%0". Talde baten hezitzaile bat baino gehiago badago, dagokion %. (adib.: taldean 3 hezitzaile, eta batek ez daki >> sartu datu hau: "%33") Lehenesten saiatuko gara datu hau aitortua izatea.
HEZITZAILEEK HAUR/GAZTEEI EUSKARAZ ZENBAT EGITEN DIETE (%)	Aukeratu: Euskaraz (%100) edo Gehien bat euskaraz (%75), Erdizka euskaraz (%50), Gehien bat erdaraz (%25), Erdaraz (%0).
HEZITZAILEEN EUSKARA TITULAZIOA	Aukeratu: A1, A2, B1, B2, C1, C2
TALDEKIDE KOPURUA	Taldeko haur/gazte kopurua
Taldekideen ADIN-TARTEA	Aukeratu: 0-5 (HH) edo 6-11 (LH) edo 12-16 (DBH). Talderen batean nahastuta badaude, jarri taldekide gehienak non kokatzen diren.
Taldekideen artean EMAKUMEZKOEN KOPURUA (%)	Sartu taldeko taldekideen artean emakumezkoen %: - Taldekide guztiak emakumezko> sartu %100. - 10 taldekide, bi emakumezko> sartu "%20 - Taldekide bakar bat ere ez emakume > sartu %0
IKASTURTEKO ORDU KOPURUA	Ikasturtean zehar taldean ematen diren orduen kopurua
EMAILE MOTA	Aukeratu (entitate) emaile mota bat: Udala, Enpresa, Guraso-elkartea, Euskalgintza, Bestelako elkarre/fundazioa, Autonomia/partikularra
TALDEAREKIN LOTUTAKO BESTELAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK	Hautazkoa da eta hauek sar daitezke: behaketaz egindako erabilera neurketak, ikasleei egindako inkesten emaitzak, haur/gazteen ezagutza datuak ...
FINANTZAZIO PUBLIKOA	Azaldu jarduerarako edo emailearen funtzionamendurako baliabide material, espazial, pertsonal eta ekonomikoetan ERAKUNDE PUBLIKOEN FINANTZAZIOAN duten parte-hartzea: emailearentzako diru-laguntzak,

	emailearekin hitzarmen iraunkorra (>1urte), hezitzaileen kontratazio publikoa, espazio eta baliabide fisiko publikoen lagapena.
--	---

(*). Izarra duten informazioa derrigorrezkoa da betetzea. Izarra ez duten informazioa nahi duenak bete dezake.